



ONDARROAKO UDALA

“ONDARROAKO KIROLARIAK HISTORIAN ZEHAR EGITASMOA”

2016 URTEKO BEKA: “JOSE MARIA NABERAN GARCIAREN BIZITZA ETA BEREZIKI KIROL ARLOAN IZAN ZUEN IBILBIDEA” JASOKO DUEN IKERKETA-BEKA.

Ondarroako Udalak, “ONDARROAKO KIROLARIAK HISTORIAN ZEHAR” deituriko ekimena abian jarri du laugarren urtez, eta JOSE MARIA NABERAN GARCIAREN BIZITZA ETA BEREZIKI KIROL ARLOAN IZAN ZUEN IBILBIDEARI buruzko ikerketa-bekarako deia egiten du.

Ikerketa esparrua honako hau da: JOSE MARIA NABERAN GARCIAREN bizitza eta bereziki kirol arloan izan zuten ibilbidearen ingurukoak jorratu behar dira.

1. BEKAREN EZAUGARRIAK

- a) Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko dira.
- b) Bekaren iraupena gehienez 6 hilabetekoa izango da, beka egileari komunikatzen den egunetik hasita.
- c) Beka honen diru zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da.

2. ESKATZAILEAK

- a) Beka norbanakoek jaso ahal izango dute.
- b) Eskatzaileak bere euskarako gaitasuna frogatu beharko du EGA edo baliokide den titulu edo diploma bidez.

3. ESKABIDEETARAKO ARAUAK

Interesatuak eskaera aurkeztu beharko dute epe barruan ondorengo agiri hauekin batera:

- a) Eskatzaileen nortasun agiriaren fotokopia bat.
- b) Titulazio akademiko zehaztua eta osatua.
- c) Curriculum vitae.
- d) Gaiaren azalpena eta lana zelan burutuko litzatekeen azaltzen duen proiektua, ahalik eta zehatzena (5 orrialdekoa gehienez), ondokoak azalduz:
 - Lanaren ikerketa esparrua.
 - Ikertzailearen aurreko esperientzia.
 - Helburuak.
 - Materialak, baliabideak eta lan metodologia.
 - Lana garatzeko kronograma.
 - Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.

4. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- Dokumentazioa Ondarroako udaletxeko erregistroan aurkeztu behar da (Kantoipe kalea 3).
- Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik 30 egunak pasa arte egongo da zabalik, biak barne.



ONDARROAKO UDALA

- Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio interesatuari.
- Bide batez, hala egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela jakinaraziko zaio; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 71.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5. ESLEIPEN PROZEDURA

- Beka hau Ondarroako Alkateak esleituko du, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren.
- Proposamen hori epaimahaiak epaitutako merezimendu lehiaketa baten emaitza oinarritzat hartuta egingo da.
- Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie.
- Honako hauek osatuko dute epaimahaia:
 - a) Batzordeburua: Alkatea
 - b) Batzordekideak: Udaleko idazkaria, Bilduko ordezkari bi eta EAJ-PNVko ordezkari bat.
 - c) Idazkaria: Kultura eta kirol saileko administraria.
- Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eskatu dezake edo/eta hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.
- Honako alderdi hauek hartuko dira aukeraketarako irizpide nagusitzat:
 - d) Eskatzailearen espediente akademikoa eta bere curriculum (0-10 puntu).
 - e) Ikerketa proiektuaren interesa, zuzentasuna eta balio zientifikoa (0-20 puntu).
 - f) Originaltasuna (0-5 puntu).
 - g) Kronograma-bidegarritasuna (0-5 puntu).
- Puntuaketa:
 - h) Eskatzailearen puntuazioa, epaimahaikide bakoitzaren puntuak gehitu eta batez bestekoa izango da.
 - i) Epaimahaikide guztiek dute hitz egiteko eta puntuazioa jartzeko eskubidea.
 - j) Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio.
 - k) Hala ere, epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

6. BEKADUNAREN BETEBEHARRAK

- a) Bekaren onarpena adieraztea eta sinatzea, emakida jakinarazi eta hamar eguneko epean.
- b) Aurreikusitako planaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezingo da egin Ondarroako Udalaren baimenik gabe.
- c) Bekaren amaieran memoria (ikerlanaren azken erredakzioa) aurkeztea. Lan horren ale bat entregatuko da paperean, tarte bikoitzez mekanografiaturik, korrelatiboki orrialdeztatua baita euskarri informatikoan ere.
- d) Epaimahaiak lana ontzat eman behar du. Zentsu horretan lanak gutxienezko oinarritzko eduki edo bekadunak proposamenean bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, 7. klausulako 1.b eta 1.c ez zaio ordainduko.



ONDARROAKO UDALA

- e) Ikerlana entregatzeko azken epea betetzen ez bada, justifikazio edo gainditu ezinezko arrazoirik gabe, penalizatu ahal izango da. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez. Bekaren %10eko murrizketa egin ahal izango da hilabete bakoitzeko atzerapenagatik.
- f) Lanaren luzera gutxienez 100 orrialdekoa izan beharko da.
- g) Egileak 30 lerro inguruko laburpena erantsiko du (euskaraz).
- h) Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Ondarroako Udala eta lanaren egilearen artean eguna eta ordua adostuta.

7. ORDAINKETAK

- 1. Ordanketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak burutu ondoren:
 - a) Kopuru osoaren %30a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
 - b) Kopuru osoaren %60a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.
 - c) Gainontzeko %10a, adostutako egunean jendaurrean aurkeztu ondoren.
- 2. Lana amaituko ez balitz, bekadunak jasotako diru guztia itzuli beharko lioke Udalari.
- 3. Ikerlanak sor ditzakeen gastuak bekadunaren kontura joango dira.

8. LANAREN JABETZA

- Lane jabea Ondarroako Udala izango da. Udalak berarentzat gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez, egoki deritzonean. Beti ere, lanaren egilea aipatu beharko du.
- Sortutako materiala aurkeztu eta urte bateko epean Udalak argitaratu ez badu, egileak material hori erabili ahal izango du egokien iruditzen zaiona egiteko. Egileak edo egileek orduan, jasotako bekaren aipamena egin beharko du (bekaren eta beka eman duen erakundearen eta laguntzailearen izenak jarritz) eta Udalari argitaratutako lanaren 10ale eman beharko dizkio.

9. GORABEHERAK

- Ondarroako Udalak betebehar hauetan aurreikusi gabeko gorabeherak konpondu ahal izango ditu. Era berean, beka indarrik gabe utzi ahal izango du, onuradunak betebehar hauetako eginbeharrekoak betetzeke lagako balitu.
- Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga
Alkatea

